



## **Irrien Lagunak Oarsoaldean Topaketa eta Jakintza Trukea**



**Tailer ireki eta parte hartzailea, 2012ko martxoaren 24an,  
Errenteriako Merkatuzar gunean**

## Nortzuk parte hartu dugun

Irrien Lagunak Oarsoaldean ekimenaren oinarriak kontrastatu, aberastu eta geureganatzeko topaketa eta jakintza trukea egin da martxoaren 24an, Errenteriako Merkatuzar eraikinean. Bertara, 80 bat heldu eta 50 bat haur bildu dira. Saioaren bukaeran, eskatu zaizkien helduei euren datuak idatziz emateko, eta 73 laguneko zerrenda osatu da. Gutxi batzuk ez dute bete, eta beste batzuk joanak ziren ordurako. Datu zerrenda bete dutenen artean, 51 emakumezko dira eta 22 gizonezko. Pasaiatik 24 lagun etorri dira, Errenteria-Oreretatik 18, Oiartzundik 8 eta Lezotik 7.

<b>Ainara Irasuegi</b> (Orereta) Orereta ikastolako HHko irakaslea
<b>Miren Arbelaitz</b> (Errenteria)
<b>Madalen Otaño</b>
<b>Monika Torrea</b> (Pasai San Pedro)
<b>Amaia Irulegi</b>
<b>Nestor Rekalde</b> (Pasai Antxo)
<b>Veronica Richard Garcia</b> (Pasai Antxo)
<b>Mikel Arruti</b> (Lezo) Zinegotzia
<b>Jaione Azpiroz</b> (Lezo) Gurasoa
<b>Juanra Cano</b> (Pasaia)
<b>Olatz Mujika Gonzalez</b> (Pasai Antxo)
<b>Amaia de Esnagarria</b> (Pasaia) zinegotzia
<b>Aitziber Salaberría Arregi</b> (Pasai San Pedro)
<b>Axun Ezibengoa</b> (Orereta) Oiartzungo Ttur-ttur euskaltzaleon bilgunea
<b>Josu Arruabarrena</b> (Errenteria) Lau Haizetara elkarte
<b>Beñat Zabala</b> (Pasai San Pedro) Guraso taldeko kidea
<b>Nerea Zangin Torrontegi</b> Gurasoa
<b>Ane Gil</b> (Oiartzun) <b>Kontxi Larrañaga Aduriz</b> (Oiartzun) Arraztalo Elkarte
<b>Susana Arevalo</b> (Oiartzun) irakaslea
<b>Maialen Villanueva Llanos</b> (Pasaia-Trintxerpe)
<b>Uxue Monreal</b> (Pasaia-Trintxerpe) Gurasoa

<b>Iñaki Berrio</b> (Pasaia-Trintxerpe) Gurasoa
<b>Urko Perez</b> (Pasaia San Pedro, Trintxerpe)
<b>Lierni Arrieta</b> (Errenteria)
<b>Ruth Ayllon</b> (Errenteria) Musika
<b>Beñat Irasuegi</b> (Errenteria)
<b>Itziar Ostolaza Galdos</b> (Errenteria) Gazte asanblada
<b>Unai Unsain Elvira</b> (Errenteria) Gaztedia Zinegotzia
<b>Jone Mendigutxia</b> (Errenteria) Euskal herrian euskaraz
<b>Maitane Basasoro</b> (Orereta) Gazte Asanblada
<b>Gorka Rikondo Saenz</b> (Pasaia) euskara taldea
<b>Leire Zarra Abril</b> (Pasaia, Lezo) Euskara taldea Lezoko herriko eskola
<b>Bakartxo Arebolaza</b> (Oiartzun) Ttur-Ttur euskaltzaleon bilgunea
<b>Nekane Artola</b> (Lezo)
<b>Lorena Kortabarria</b> (Pasaia) Euskara taldea
<b>Ametz Etxebarria</b> (Errenteria) Orereta Ikastolako irakaslea
<b>Edurne Lizarazu</b> (Lezo)
<b>Jon Legorburu</b> (Lezo) Trapujale taldea
<b>Naroa Otamendi</b> (Errenteria) Orereta Ikastolako Euskaraz Bizi taldea
<b>Maidier Olaizola</b> (Oiartzun) Gurasoa
<b>Alex Tello Usurbil</b>
<b>Ainara Aranburu</b> (Errenteria) Orereta Ikastolako euskaraz bizi taldea
<b>Asier Aranguren</b> (Pasaia)
<b>Iñigo Beraza</b> (Pasai San Pedro)
<b>Kristina Zuloaga Garbizu</b> (Lezo)
<b>Estibaliz Ledesma Arratibel</b> (Pasai San Pedro) Euskara taldea
<b>Maite Kortajarena</b> (Pasaia) Gizarte laguntzailea
<b>Agurtzane Labaka</b> (Errenteria) Langaitz Ikastola
<b>Ane Olhotz</b> (Errenteria)
<b>Gorka Iriarte</b> (Errenteria)

<b>Jaione Andres</b>
<b>Afrika Dimalta</b>
<b>Joxerra Isasa</b> (Pasai San Pedro)
<b>Nekane</b> (Oiartzun)
<b>Mikel Azkarate</b> Gurasoa
<b>Ziortza Rodriguez</b> (Pasaia Antxo) Euskara taldea
<b>Ainara Aldanondo</b>
<b>Jaione Urruzola</b> (Pasaia) Euskara teknikaria
<b>Joxe Mari Iraola</b> (Lezo) Euskara teknikaria
<b>Junkal Mintegia</b> (Errenteria) Euskara teknikaria
<b>Joxemari</b> (Errenteria) Euskara teknikaria
<b>Aitziber Arnaiz</b> (Oiartzun) Euskara teknikaria
<b>Maddi Aranburu, Miren Arregi, Maialen Perez</b> Umeen dinamizatzaileak
<b>Porrotx, Nere Ormazabal, Nekane Goikoetxea, Iñaki Urruzola, Lorea Agirre</b> Helduen dinamizatzaileak

## **Nondik abiatu gara**

Heldu eta umeei ongietorria Errenteriako Txistulari Taldeak eman die, eta baita Lezoko Trapujale taldeko Jon Legorburuk euskal mitologiako pertsonaia gorpuztuarekin. Ondoren hiru talde osatu dira: helduena, 4 urtetik aurreragoko umeena, eta 4 urtetik beheragoko haurrena. Azken hauek jolas eta zaintza txokoan egon dira. 4 urtetik gorako umeek ere izan dute euren gunea eta euren jolasa, baina egitasmoaren inguruan gogoeta egin dezaten lehen hurbilpentxo bat egin da. Helduak, euren gunean, jakintza trukea egin dute.

## **Helduen gunea**

Lau hizlarik egitasmoaren beraren lau oinarriak azaldu dituzte, ondorengo talde txikietako eztabaidari oinarriak jarri eta gaiak zentratze aldera. Hona esan dutenaren laburpena:

### **Itsaso Pagoaga: Aisia hezitzailea**

*Arrasateko Txatxilipurdi aisia taldeko kidea*

Aisia hezitzaileak lau ezaugarri ditu: askea, euskalduna, tokian tokikoa eta autonomia.

Aisialdiaren definizio bat lehen lehenik: eskola, lana, familia zein gizarte esparruetan pertsonak dituen derrigorrezko eginbeharretatik kanpo dagoen denbora tartea, bakoitzak nahi duena egiteko erabili dezakeen denbora. Eta aisiarena, ondoren: Denbora librearekin harremana duen jarduera mota da. Pertsonak, bere interes eta beharren arabera, modu librean aukeratzen du zer egin eta nola egin; atsedena hartu, ondo pasa, gizarteko ekimenetan parte hartu, gustuko gaietan formatu... Aisiako jarduera gauzatzeak gozamina eta poza ematen dio norbanakoari.

**Askea:** Aisiaz gozatzeko, ezinbestean, aisialdia edo denbora libre behar da. Ondoren, denbora libre horretaz egiten den erabilerak askatasuna (norberak nahi duelako egiten du edo aukeratzen du) eta gozamina (nahiz eta sarri esfortzua ere suposatzen duen, dibertimendu eta plazer iturri delako) aurreikusi behar ditu.

Zentzu honetan beraz, gurasoen eta gazteen aisiarako eskaera ez da berdina, ez ditu funtzio eta helburu berdinak. Eskolaz kanpoko jarduera guztiak ez dira aisialdi hezitzailearen barruan kokatuko, zenbait kasuetan jarduera horien aukeraketan haurrek ez dutelako erabakitze askatasunik.

Aisiako jarduera antolatuetan, jendea ezagutzeko modua, harreman berriak egiteko aukera, toki eta ingurune berrietara hurbiltzeko aukera ikusten dute.

**Euskalduna:** Euskaraz ulertzen dugu aisialdia hezitzailea Txatxilipurdi elkartean. Euskara elkarte gara eta baita aisialdi elkarte. Gure eginkizuna, aisialdiko eskaintza euskalduna izan dadin tresna eta bitartekoak sortzea da. Horretarako gabiltza lanean, aisialdi hezitzaile euskaldun bat sustatu eta bermatzeko. Guk ez dugu zalantzan jartzen zein hizkuntzatan jardun behar dugun aisialdiko eskaintzan, aurrez dakigu euskaraz jardun behar dugula.

**Zergatik sustatu behar dugu euskara aisialdi eskaintzetan?** Euskarak, esparru batzuetan aurrera egin arren, adibidez, eremu formalean (eskola). Beste zenbait eremu ez formalean euskararen erabileran oraindik asko daukagu egiteko, eta horren adibide da aisialdiaren esparrua. Eremu ez formal eta erregistro desberdinetan euskararen erabilera sustatu behar dugu, euskaraz bizi ahal izateko. Nekez biziko gara euskaraz, euskara soilik eremu formalean bermatuz. Gainera, haurren kasuan ez horrenbeste, baina gazteen kasuan, eredugarriena esparru informalean gauzatzen diren hizkuntza ohiturak dira eta

ez eskola, edota instituzioetatik bideratzen diren hizkuntzarekiko mezuak.

**Tokian tokikoa:** Aisialdiak hezitzailea izateko beharrezkoa du, jarduera garatzen den **lekuaren errealitatearen beharrei** erantzutea. Eta horretarako gauzatzen den lekuaren errealitatearen arabera antolatu beharko dira jarduerak (errealitatea abiapuntutzat hartuta). Leku bateko zein besteko, egoera linguistikoa, demografikoa, soziala zein ekonomikoa desberdina delako, horrek funtzionamenduan, eragiteko esparruan etab. eragina izanik. Zenbait kasuetan herri batetik bestera daude desberdintasunak eta beste zenbait kasutan (maiz) herri baten barruan dauden auzoen arteko errealitatea ere desberdina da. Anitzak gara geu eta anitzak dira herrietako errealitateak.

**Autonomia:** Aisialdi antolatua da Txatxilipurdi elkarteak egiten duen eskaintza. Hala eta guztiz ere, ikasturte honetan hausnarketa prozesu bat abiatu dugu elkarteko zenbait eskaintza hobetzeko asmoz. Zentzu horretan autonomiaren nola lantzen dugun aipatu nahiko nuke eta horren garrantzia azpimarratu.

Orain artean gure asmoa, haur eta gazteak, beraien aisialdia antolatzeko prestatzea izan da. Baina horretarako aisialdi eskaintza antolatu eta egituratu bat eskaini diogu. Nahiko kontraesankorra da. Baina hausnarketa horretarako da. Etorkizunean nola izango dira gai beraien aisialdia antolatzeko, ez baldin badiegu hasieratik aukera eman beraien gisara antolatzeko?

Aisialdi hezitzaileak, haur eta gazteen autonomia bultzatu behar du, beraiek beraien kabuz beraien aisialdia antolatzeko gai izan daitezen. Ez soilik etorkizunean, heldu direnean, baizik eta haur direnetik. Horretarako baina, gaur artean ez bezala, beraiekin (haur eta gazteekin) hasi behar gara adostu eta planifikatzen aisialdiko eskaintza. Antolaketa ez hain egituratuekin eta bestelako formulak bilatuz (asanbladak, programaketa konpartituak etab.). Autonomia modu errealean gauzatuz soilik (txikitatik antolaketan trebatuz) lortuko dugu gazteek beraien aisialdia antolatzea. Izan gaitasuna badute eta.

## **Andere Ormazabal: Partaidetza**

*Parte Hartuz ekimenako teknikaria*

Asko hitz egiten da parte hartzearen inguruan azkenaldion. Politikoei bere egindako kontzeptu bat dugu, erabiltzearen erabiltze benetako esanahia galtzera eraman dutena ia ia. Parte hartzea gizartea antolatzeko tresna baino ez da funtsean, Euskal Herrian berezko izan dugun zerbait, beharrezko izango duguna politika egiteko beste modu bat gauzatze bidean. Horretarako,

**elkartegintzaren, herri mugimenduen zein herritar ez antolatuen praktika eraldatzaileak indartu behar ditugu,** begirada kritikoa elikatuz.

Bizitza duinaren zaintza eta iraunkortasuna bermatuko duten baldintza egokiak guztion artean aztertu eta eztabaidatu beharko genituzke, emakume eta gizonen bizi kalitatearen eta antolakuntza sozialaren aldeko apustu argia eginez.

Eredu sozial, ekonomikoa eta politikoa aldarazten lagunduko duen udal politikak, erabakitze espazio kolektibo eta iraunkorrak eraiki behar ditugu. Herrigintza indartzeko eta garatzeko espazioak funtsezkoak dira. Eredu kapitalista eta administrazioaren logika normatibista, merkantilista zein homogenizista aldaraziko dituen neurriak hartu behar dira, gutxi batzuen aldeko politikak baztertuz. Eta lan egiteko, erabakiak hartzeko eta harremanetarako bide berriak zabalduz. Eta guzti horrek azken finean, *diktadura ekonomiko batetik demokrazia ekonomiko parte hartzailearantz* urratsak ematea eskatzen du.

**Partaidetza ezin da izan aurrez hartutako erabaki politiko baten legitimizatzeko tresna,** edota gatazkak ekiditeko azken orduko prozedura ezta marketin politikorako lanabesa ere. Borondate demokratizatzailea behar du izan, lan egiteko moduak aldatu eta antolaketa eredu berri baten oinarrietako bat da. Horretarako herritarren sektore guztietara hurbildu beharko gara. Aniztasuna eta botere asimetriak kontuan hartuz, komunitatearen beharrizan, interes eta arazoen inguruko eztabaida irekiak bermatuz. Ez dugu legitimaziorako parte-hartzerik nahi, **gizarte eraldaketaren alde lan egingo duen herritarren parte-hartzea baizik.**

### **Nekane Goikoetxea: Euskara**

*HUHEZIKo irakaslea*

Gure Hezkuntza fakultatean gure ikasleen hitz gakoa *inklusibitatea* da. Era guztietako aniztasunari (fisikoa, gaitasun kognitiboa, maila sozioekonomikoa, jatorria, kultur ikuspegia, balioak...) zein bide ematen diogu gure hezkuntzan? Horra gure ikasleei egiten diegun lehen galderetako bat. **Euskarara etorrita, nola ulertzen dugu inklusibitatearen erronka?** Hasteko esan beharko genuke euskarara biltzeak ez duela eskatzen beste hizkuntzak galtzea. Gainera, euskaldun izateko faktore bakarra, gure iritziz, euskara bera da, euskaradun izatea alegia. Beraz, azpimarra genezake **euskaldun izatea erabat inklusiboa** dela gure gizartean. Bestetik, autoestimu ariketa baten aurrean

gaude. Zergatik nahi dugu Irrien Lagunen klubaren bitartez ahalik eta jende gehien bildu dadin proiektura? Ba **guretzako ona dena partekatu nahi dugulako anitza den jendearekin**, edozein dela ere bere arraza, jaiotza-lekua eta ideologia. Hizkuntza-lidergoaz hitz egiten dugunean, bestalde, oinarrizko galdera baten aurrean paratzen gara: Zer nahi dut nik? Erantzuna bada balio batzuen arabera bizi nahi dudala, euskaldun izateak eta euskaraz bizitzeak zein leku duen galdetu behar diogu geure buruari. Bide horretan lidergoa garatu egiten dugu, **euskara eramaten dugulako gu goazen lekura**. Zertan datzan lidergoak? guretzat ona dena besteekin partekatzean edozein lekura goazelarik ere.

## **Lorea Agirre: Auzolana**

*HUHEZIKo irakaslea*

Parte hartzea, erabakien demokratizazioa, gobernantza modu horizontalak eta tankerako hitzak gero eta usuago erabiltzen ditugu. Euskal Herriko jendeak badu hori dena izendatzeko berezko modu bat: auzolana. Auzolan tradizional honen ezaugarriak zapira ekar litezke: egiturazkoa izatea, auzo guztien parte hartze zuzena ahalbideratzea, erabaki gunea herri batzarra izatea, bizi beharrari erantzuteko ezinbesteko izatea, taldetasuna sendotzea, herrigintza xede izatea eta erritualizatua izatea (soka dantzaren bitartez plazan adierazten dena). Egitura finko moduan ia-ia galtzear dagoen parte hartze sistema bat da, gizartea bera eta bizikera bera aldatu delako, baina bere filofosia bizirik dago gure artean. Euskararen berreskurapenaren historia da, esate batera, horren froga. **Auzolanaren filosofia hori egituraz eta helburu berriz gaurkotu liteke**, eta horretan dabilta kulturgintzako ekimen asko azkenaldian.

Gaurko begiz, sei oinarri jarri dakizkioke auzolanari: herrigintza helburu duen ekimena izatea (edozein elkarlan ez da auzolan)a; jendearen funtzio soziala indartzea; auzolankidetzat buru-belarri dabilena, eta ekintza xume batean parte hartzen duena hartzea; erabakiak adostea eta zereginak banatzea; eta, ikasketa prozesu eraldatzaile bat izatea.

Horretarako egituraz ba eta lan-modu bat behar ditugu: alegia, **herri batzar ireki eta inklusiboa, eta parte hartze errealerako moduak baliatzea**.

Irrien Lagunak Oarsoaldean ekimena auzolanaren fruitu izango da, hain zuzen ekimenak berak dituen ezaugarri eta helburuak horrela eskatzen dutelako. Komunitategintza delako helburu, jendea eta horien artean bereziki umeak protagonista jarri nahi dituelako, eta aisia hezitzailearen bitartez gizarte

eraldaketa bat proposatu nahi duelako. Tradizionalki soka-dantzarekin erritualizatu den auzolana soka-dantza modu berriz jantzi nahi da gure ekimenarekin, eta alderantziz, **gure ekimena soka-dantza berritu baten lehen urratsa izatea da xedea.**

## **Eztabaida eta gogoetarako tartea**


Ondoren jendea zortzi laguneko taldetan jarri eta lau galdera aurkeztu zaizkien euren iritzia eta euren ekarpena egiteko. Talde bakoitzak dinamizatzailerik edo idazkari bat izan du bertako ideiak jaso eta ondorengo plenarioan aurkeztu ahal izateko. Idazkari lanetan honako hauek jardun zuten: Jaione Urruzola, Joxemari, Junkal Mintegia, Joxemari Iraola (herrietako euskara teknikariak), Ander Ormazabal (Parte Hartuz taldeko kidea), Arrate Egaña (Elhuyarreko parte hartze teknikaria eta Irrien Lagunak Oarsoaldean ekimeneko partaidea), Iñaki Urruzola, Nekane Goikoetxea eta Lorea Agirre (Huheziko Sorguneak taldeko kideak).

Galderak honako hauek izan dira:

- Zertan gauzatu litezke **balio hezitzaileak** umeen aisiaren eremuan?  
Nola irudikatzen duzu gauzatu litekeela Irrien Lagunak Oarsoaldean ekimenaren baitan?
- Zertan gauzatu liteke **parte hartzearen** dimentsioa umeen aisiaren eremuan?  
Nola irudikatzen duzu gauzatu litekeela Irrien Lagunak Oarsoaldean ekimenaren baitan?
- Zertan gauzatu liteke **euskararen zentralitatea** umeen aisiaren eremuan?  
Nola irudikatzen duzu gauzatu litekeela Irrien Lagunak Oarsoaldean ekimenaren baitan?
- Zertan gauzatu liteke **auzolana** umeen aisiaren eremuan?  
Nola irudikatzen duzu gauzatu litekeela Irrien Lagunak Oarsoaldean ekimenaren baitan?

Plenarioan, talde bakoitzaren ekarpenak bildu eta horma paper handi batean itsasi dira. Jarraian agertzen diren eskemek talde txikietatik atera dira ideia eta proposamenak biltzen dituzte. Ideia zaparrada handia izan da, eta eskema hauetan aurrera begira lantzeko moduan antolatutak ageri dira.


# BALIO HEZITZAILEAK



Datozen urratsen oinarri izango diren ideiak:

1. Balioen inguruko eztabaida eta adostasuna bilatzea, komunitate osoaren artean. GOGOETA ETA FORMAIZIOA.
2. Balio hezitzaileak praktikan jarri behar dira, umeen sormena baliatuz, jolasa erabiliz. Esperientziarekin barneratuko dira. PRAKTIKA ESANGURATSUA.
3. Esperientzia hori eraldatzailea izan behar da: oinarri finkoak, aldaketak eragin eta utzi behar ditu, bai jendearen arteko harremanetan, bai herrian, bai espazio fisikoan, bai balioetan, bai ekimenetan... ERALDAKETAK GORDETZEKO MODUAK: EGITURATU, FINKATU.


# PARTE HARTZEA



Datozen urratsen oinarri izango diren ideiak:

1. Ikasketa prozesu bat da. **FORMAZIOA ETA PEDAGOGIA**
2. Jendea biltzeko modu berriak, erabaki gune berriak. Herri batzar inklusibo, ireki eta askea. **FORMAZIOA, PRAKTIKAREN BITARTEZ.**
3. Umeen parte hartzea giltza, komunitate osoak parte har dezan. **SUBJEKTU POLITIKO SOZIAL GISAN ERDIGUNEAN JARRI.**


# EUSKARA



Datozen urratsen oinarri izango diren ideiak:

1. Atxikimendua landu beharra: helduek, kontzientzia eta motibazioaren bitartez; umeak, transmisioaren bitartez. **FORMAZIOA**
2. Diskurtsoak garatu eta artikulatu, praktikara eramateko; inklusibitatea, zentraltasuna, gozamena, eskuzabaltasuna. **DISKURTSOA**
3. Diskurtsoa praktikara eraman: barne trinkoztea eta kanpo eraginkortasuna bilatzeko.
4. Euskara atmosfera, ez objektu. **PRAKTIKA KONPARTITU, INTEGRATZAILE ETA GOZATZAILE.**

# AUZOLANA



Datozen urratsen oinarri izango diren ideiak:

1. Esperientziak ezagutu, berreskuratu, jarraipena eman. FORMAZIOA, TRANSMISIOA.
2. Berdintasunezko parte hartzea. PRAKTIKA KOLEKTIBOA.
3. Sustraitu eta zabaldu. Belaunaldi katea birsotu. Iragana, oraina eta etorkizuna lotu. HERRIGINTZA EGITURATU ETA LOTU. PRAKTIKA ESANGURATSUA.

## Umeen taldean

Umeen taldean guztira 50 bat ume bildu dira, eta bi taldetan banatu: 0-4 urtekoak batean, eta 4 urtetik aurrerakoak beste batean. Azken hauen presentziaren xedea bikoitza izan da. Batetik, ume horiei aisialdi tarte bat eskaintzea, helduak prozesu parte hartzailean diren bitartean, eta abagune hori aprobetxatu nahian, eta lehen praktika esanguratsu modura ume horiei ere jaldunaldien xedea bera, aisia ekimen hezitzailea antolatzeko bide horretan, euren ekarria egiteko bidetxo bat zabaltzea. Porrotxek umeei azaldu die euren aisia zer egin nahiko luketean, edo euren herri eta inguruetik zer gustatzen zaien eta zer ez, marrazki, joko, antzerki edo nahierara adieraztea polita litzatekeela. Jon Legorburuk ere txotxongiloekin antzerkia egin die.

Ume talde honen zaintzaz Huheziko Irakasletza Gradu hiru ikasle arduratu dira, hain zuzen **'Eskuartze soziokulturala' ikasgaiaren baitako praktika baitute Irrien Lagunak Oarsoaldean laguntzaile bolondres gisan jardutea. Miren Arregi, Maialen Perez eta Maddi Aranburu izan dira arduradunak.** Umeek landu dute gaia, eta egin dituzte proposamenak. Ondoren, plenarioan, ez da horren emaitza ikusi, umeek antzerkitxo bat egin dute, eta marrazkiak plenarioko hormak erantsi dituzte bai, baina helduen aurrera agertzean, prestatua zutena ez da bete, lotsatu direlako, edo gune eta modu egokiena ez zelako hori beraientzat. Hala ere, saioa egin egin da.

## Eta gainera

Herri bakoitzak beretik ordezkari bat ekarri du. Horrela, Oiartzundik **Amaia Larrañaga** artzainak gazta ekarri du hamaiketakorako, **Errenteriako Txistulari taldeak** harrera eta agurra eman dio topaketari, Lezoko **Jon Legorburuk** ongietorria egiteaz gainera, umeei antzerkia eskaini die, eta Errenteriako **Albaola itsas kultur taldeak** bere proiektua partekatu dute bertaratutakoekin.

**Topaketa gidatzeko, jendea motibatu, taldekatu, lasaitu eta giro onean jartzeko Porrotxek egin du lan.** Hainbat jolas dinamizatzailearen bitartez, bai umeen eta baita helduen dinamika bideratu du.

## Eta bukatzeko...

Bertaratuei balorazioa eskatu zaie. Zer ikusi duten ongi, eta zer den hobetu behar duguna. Hemen erantzunen laburpen esanguratsu bat:

+	-
<b>Ontzat hartutakoak</b>	<b>Hobetu beharrekoak</b>
<b>Egunaren antolakuntza</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lekuaren egokitasuna, osagaiak</li> <li>• (txistulariak, Porrotxen rola)</li> <li>• Esker onez, zorionak emanaz</li> <li>• Ludikotasuna nola engaiamendua aitortuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Megafonia arazoak,</li> <li>• Sonoritate arazoak.</li> <li>• Oiartzun handia.</li> </ul>
<b>Metodologia</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan dinamika</li> <li>• Guztiek berba egiteko aukera izatea</li> <li>• Gaian sakontzeko aukera</li> <li>• Propositiboa</li> <li>• Zabal jokatzeko borondatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Denboraren kudeaketa justua</li> <li>• Eztabaidarako tarte gutxi,</li> <li>• Gogoia gaian sakontzeko eta ideiak bateratzeko</li> </ul>
<b>Partaidetza</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskualdea bateratzea</li> <li>• Jende ezberdina, ugaria, anitza eta askotarikoa izatea</li> <li>• Gizarte mugimenduetako eragileak bertan egotea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Falta izan den jende interesgarriaren berri ematen da.</li> </ul>
<b>Euskararen zentralitatea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Azpimarratzen den ideia</li> <li>• Baikor, eskertuz</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontrako iritzirik ez da azaldu</li> </ul>
<b>Partaideen profila</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Guraso antolatuak</li> <li>• Anitza</li> <li>• Engaiatua</li> <li>• Kualifikatua, prestatua</li> <li>• Gaia arduraz eta kemenez heltzeko prest dagoena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteen presentzia faltan bota izan da, eta baita aiton-amonena ere</li> </ul>
<b>Haurrak integratzea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskertu</li> <li>• Oso modu baikorreetan hartu da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tarte gutxi umeentzat</li> <li>• Moduak hobetu beharra</li> </ul>
<b>Neurria eta sekuentzia</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Egitarauaren aniztasuna</li> </ul>	

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egokitasuna azpimarratzen</li> <li>• Formatoa</li> <li>• Eskualdeko jende ezberdina,</li> <li>• Ludikotasuna,</li> <li>• Bazkaria auzolanean izatearena</li> </ul>	
<p><b>Hizlariak eta edukiak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• kokatzeko eta sakontzeko baliagarriak</li> <li>• Neurrian eta modu nahiko dinamikoan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzaldiren bat abstraktuegia</li> <li>• Edukiak ulertzeko zailtasuna</li> <li>• Hitzaldi teknikoegiak</li> <li>• Errealismoa eskatzen da</li> <li>• Teoria eta praktika uztartu beharra</li> </ul>
<p><b>Plenariora</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ideia kopuru handia</li> <li>• Gauzapenerako aukerak zabaldu izana</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erronkaren tamainari errespetua</li> <li>• Zuhurtziaz jokatu beharra</li> </ul>

Talde argazkia egin da eraikinaren kanpoaldean, eta ondoren partaideek etxetik ekarri dituzten jakiak partekatu eta bazkaldu egin da.

# **Eskerrik asko denoi!**

## **Laster arte!**